

# PRESTACIONES ECONOMICAS DE LA LEY DE DEPENDENCIA EN GIPUZKOA




Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gizarte Politikako Departamentua  
Departamento de Política Social

**Gi**puzkoa  
zure ondoan





Desde el mes de enero las personas con dependencia moderada, valoradas como Grado 1 Nivel 2, pueden acogerse a las prestaciones que en función de su nivel les reconoce la Ley de Dependencia.

Desde el Departamento de Política Social de la Diputación de Gipuzkoa hemos editado esta guía cuyo fin es facilitar una información detallada y accesible a aquellas personas que, valoradas en este Grado 1 Nivel 2, pueden ser beneficiarias de las prestaciones contempladas en la Ley de Dependencia.

Pero además esta publicación recoge la normativa que rige Gipuzkoa en la gestión y aplicación de la Ley de Dependencia de interés general para la población, con lo que cumplimos una vez más con nuestro compromiso de ofrecer una completa información a la ciudadanía.

En estos 4 años de vigencia de la Ley de Dependencia en Gipuzkoa se han realizado 53.091 valoraciones y 15.916 personas figuran, a 31 de diciembre de 2010, como beneficiarias de las diferentes prestaciones, tanto de servicios como económicas, que otorga la ley. Ha sido un arduo pero fructífero trabajo para continuar mejorando el bienestar de los guipuzcoanos y guipuzcoanas.

Un saludo.

**MAITE ETXANIZ BALENTZIAGA**  
**DIPUTADA FORAL DE POLÍTICA SOCIAL**

# PRESTACIONES ECONOMICAS DE LA LEY DE DEPENDENCIA EN GIPUZKOA



# 2011 SE INCORPORAN LAS PERSONAS CON DEPENDENCIA MODERADA GRADO I NIVEL 2

Son personas que necesitan ayuda para realizar varias actividades básicas de la vida diaria, al menos una vez al día, o tienen necesidades de apoyo intermitente o limitado para su autonomía personal.

Para este grado se contemplan servicios de teleasistencia, de ayuda a domicilio, centro de día y promoción de la autonomía personal.

# PRESTACIONES ECONÓMICAS DE DEPENDENCIA EN GIPUZKOA

## TIPOS DE PRESTACIONES

**Prestación económica para cuidados en el entorno familiar:** destinada a contribuir a la cobertura de los gastos derivados de la atención a la persona dependiente por parte de un cuidador de su entorno familiar.

**Prestación económica de asistencia personal:** destinada a contribuir a la cobertura de los gastos derivados de la contratación de un asistente personal que facilite la promoción de la autonomía de las personas con gran dependencia.

**Prestación económica vinculada al servicio:** destinada a contribuir a la cobertura de los gastos derivados de los servicios de Centro de Día y Residencia de carácter privado.



## REQUISITOS GENERALES

- \* Residencia en territorio estatal durante cinco años de los cuales dos deben ser inmediatamente anteriores a la fecha de solicitud.
- \* Estar empadronado/a y residir en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.
- \* Haber sido valorado/a como persona dependiente, valoración que se realizará por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa, solicitándola a través de los servicios sociales de base del municipio de residencia.

La situación de dependencia se clasifica en los siguientes grados:

**GRADO I.** Dependencia moderada: cuando la persona necesita ayuda para realizar varias actividades básicas de la vida diaria al menos una vez al día.

**GRADO II.** Dependencia severa: cuando la persona necesita ayuda para realizar varias actividades básicas de la vida diaria dos o tres veces al día pero no requiere el apoyo permanente de un cuidador.

**GRADO III.** Gran dependencia: cuando la persona necesita ayuda para realizar varias actividades básicas de la vida diaria varias veces al día y necesita del apoyo indispensable de otra persona.

Cada grado se clasifica en dos niveles, en función de la autonomía de las personas y de la intensidad del cuidado que requiere.

# REQUISITOS ESPECÍFICOS Y PERSONAS QUE PUEDEN SOLICITAR LAS PRESTACIONES

## **Prestación económica para cuidados en el entorno familiar:**

- \* Que los servicios sociales de base determinen la idoneidad de esta prestación.
- \* Que los cuidados se presten en el domicilio y que resulten idóneos para las necesidades de la persona dependiente.
- \* Que se den las condiciones adecuadas de convivencia y habitabilidad de la vivienda.
- \* El cuidador deberá:
  - Ser cónyuge, pareja de hecho o pariente por consanguinidad, afinidad o adopción hasta el tercer grado.
  - Ser mayor de 18 años y residir legalmente en Gipuzkoa.
  - Estar dado de alta en la Seguridad Social o darse de alta a través de un convenio especial financiado por el Estado.
  - Convivir y estar empadronado/a con la persona dependiente.
  - No estar valorado como persona dependiente.

Podrán solicitar esta prestación las personas valoradas como Grado III y II en cualquiera de sus niveles así como las valoradas como Grado I nivel 2.

## **Prestación económica de asistencia personal**

- \* Que los servicios sociales de base determinen la idoneidad de esta prestación.
- \* La persona dependiente deberá haber sido valorada en el Grado III en cualquiera de sus niveles y deberá tener más de tres años.
- \* Deberá existir un contrato entre la persona dependiente y el asistente personal o en su caso empresa que proporciona la asistencia personal.


- \* Los asistentes personales deberán:
  - Tener más de 18 años y residir legalmente en Gipuzkoa.
  - No tener relación familiar con la persona dependiente.
  - Estar dado de alta en la Seguridad Social.

Podrán solicitar esta prestación únicamente las personas valoradas como Grado III en cualquiera de sus niveles.

### **Prestación económica vinculada al servicio**

- \* Haber solicitado un servicio público de Centro de Día o Residencia y llevar más de tres meses en lista de espera.
- \* Acreditar a través de un contrato que se dispone de cualquiera de los dos servicios en un centro privado.

Podrán solicitar esta prestación las personas valoradas como Grado III y II en cualquiera de sus niveles.





## COMPATIBILIDAD INCOMPATIBILIDAD Y DEDUCCIONES

- \* Las tres prestaciones económicas son incompatibles entre sí, es decir, que la percepción de una cualquiera de ellas supone la imposibilidad de percibir las otras.
- \* Las tres prestaciones económicas son incompatibles con la Atención Residencial permanente en un centro público o concertado. Tampoco se podrá percibir la prestación económica de cuidados en el entorno familiar y la prestación de asistencia personal cuando la persona en situación de dependencia se encuentre en un centro residencial de carácter privado.

- \* Cuando las prestaciones económicas se compatibilicen con los siguientes servicios, las condiciones serán:
  - Servicio de Ayuda a Domicilio: 20% de deducción
  - Centro de Atención Diurna o Atención Ocupacional: 50% de deducción.
  - Centro de Atención Diurna o Atención Ocupacional + Servicio de Ayuda a Domicilio: 60% de deducción.
  - Estancias temporales, ingresos en centros sociosanitarios, psiquiátricos o similares: más de 2 meses de estancia continuada: suspensión temporal.
- \* Se deducirá asimismo cualquier otra prestación de análoga naturaleza o finalidad de carácter público. En particular:
  - Complemento de gran invalidez de la pensión de incapacidad permanente absoluta.
  - Complemento de la asignación por hijo/a a cargo mayor de 18 años con un grado de minusvalía igual o superior al 75%.
  - Complemento de necesidad de tercera persona de la pensión de invalidez no contributiva.
  - Subsidio de ayuda de tercera persona de la Ley de Integración Social de Minusválidos.
- \* El importe de la prestación económica se determinará también en función de los rendimientos declarados en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas pudiendo, en su caso, reducirse en un 10%, 20% o 30%.





## PROCEDIMIENTO Y DEVENGO

Las solicitudes deberán presentarse en los servicios sociales de base del municipio de residencia de la persona dependiente en la que se encuentre empadronada.


El pago se efectuará desde el mes siguiente a la solicitud siempre y cuando se cumplan en dicho momento todos y cada uno de los requisitos exigidos para cada prestación.

## OBLIGACIONES

- \* Destinar el importe de las prestaciones al fin para el que fueron concedidas.
- \* Facilitar la información y presentar la documentación pertinente que les sea requerida.
- \* Comprometerse a que el servicio al que se destina la prestación se está efectivamente llevando a cabo. A tal efecto, se deberá comunicar en el plazo de un mes cualquier variación que pudiera dar lugar a la modificación, suspensión o extinción de la prestación.
- \* Reintegrar el importe de las prestaciones indebidamente percibidas o en cuantía indebida.

## NORMATIVA

Decreto Foral 25/2009, de 21 de julio, por el que se regulan las prestaciones económicas de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia.



## **53.091 VALORACIONES REALIZADAS Y 15.916 PERSONAS BENEFICIARIAS DE PRESTACIONES DE DEPENDENCIA HASTA EL 31 DE DICIEMBRE DE 2010**

Son 15.068 las personas que tienen una valoración con el grado máximo de dependencia, Grado III Gran dependencia. 10.508 las que tienen una dependencia severa Grado II y 7.958 las personas con dependencia moderada Grado I.

Por su parte, 8.859 personas son receptoras de la prestación económica para cuidados en el entorno familiar, 1.061 de la prestación económica de asistencia personal y 143 de la prestación económica vinculada al servicio.

Finalmente se han abonado 94.811.657,68€ por las tres prestaciones económicas de dependencia según el siguiente desglose:

- \* Prestación económica para cuidados en el entorno familiar: **75.510.089,34€**
- \* Prestación económica de asistencia personal: **16.665.999,24€**
- \* Prestación económica vinculada al servicio: **2.635.569,10€**

# MENDEKOTASUN LEGEAREN PRESTAZIO EKONOMIKOAK GIPUZKOAN



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gizarte Politikako Departamentua  
Departamento de Política Social

**Gi**puzkoa  
zure ondoan





Urtarrilaz geroztik, mendekotasun ertaina edo tartekoa duten pertsonak ere (I. Gradu 2. mailakoek) eska ditzakete Mendekotasun Legeak aitortzen dituen prestazioak.

Hala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak gida hau atera du. Gidaren xedea da ahalik eta informaziorik argiena ematea I. Gradu 2. mailako mendekotasunekotzat baloratuta pertsonen Mendekotasun Legeak dakartzan prestazioen gainean.

Era berean, Gipuzkoan Mendekotasun Legea gestionatzeko eta aplikatzeko diren arauak ere biltzen ditu gida honek, herritar guztien interesekoak izan daitezkeenak. Horrela, gure konpromiso bat betetzera gatoz beste behin ere: informazio osoa ematea herritarrei.

Mendekotasun Legea indarrean den 4 urte hauetan 53.091 pertsona baloratu ditugu Gipuzkoan, eta, 2010eko abenduaren 31rako, 15.916 pertsona ari dira legeak dakartzan prestazioak jasotzen, prestazio ekonomikoak edo zerbitzuak. Lan gogorra baina emankorra izan da, gipuzkoarren ongizatea hobetzen jarraitze aldera egiten duguna.

Adeitasunez,  
**MAITE ETXANIZ BALENTZIAGA**  
**GIZARTE POLITIKAKO FORU DIPUTATUA**

**MENDEKOTASUN  
LEGEAREN  
PRESTAZIO  
EKONOMIKOAK  
GIPUZKOAN**



# TARTEKO MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONAK ERE SARTU DIRA 2011ean: I. GRADUKO 2. MAILAKOAK

Alegia, egunean behin behintzat laguntza behar dutenak, eguneroko bizimoduko oinarritzko gauzetarako; eta baita aldian behin laguntza behar dutenak ere, beren kasa moldatzeko.

Gradu horretako mendekotasuna dutenentzat telelaguntza, etxeko laguntza, eguneko zentroak eta autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak daude.

# MENDEKOTASUN LEGEAREN PRESTAZIO EKONOMIKOAK GIPUZKOAN

## PRESTAZIO MOTAK

**Familia inguruneko zaintzarako prestazio ekonomikoa:** Mendekotasuna duen pertsonari zaintzaile batek bere familia ingurunean zaintzeak dakartzan gastuak ordaintzen laguntzea.

**Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa:** Mendekotasun handiko pertsoneri autonomia handiagoa izaten lagunduko dien profesionala kontratatzeak dakartzan gastuak ordaintzen laguntzea.

**Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa:** Eguneko Zentroetako eta egoitza pribatuetako zerbitzuen gastuak ordaintzen laguntzea.



## BALDINTZA OROKORRAK

- \* Estatuko lurraldean gutxienez bost urtean bizi izatea, eta horietatik bi behintzat eskaera aurkeztu aurreko biak izatea.
- \* Gipuzkoako Lurralde Historikoan errolatuta izatea eta bertan bizi izatea.
- \* Mendekotasuna duen pertsonatzat baloratuta izatea. Balorazioa Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten du. Eskaera, berriz, bizi den udalerriko gizarte zerbitzuetan egin behar da.

Mendekotasun gradu hauek daude:

**I. GRADUA.** Mendekotasun ertaina edo tartekoa: Pertsonak eguneroko ohiko ekintzak egiteko laguntza behar du, gutxienez, egunean behin.

**II. GRADUA.** Mendekotasun larria: Pertsonak eguneroko ohiko ekintzak egiteko laguntza behar du, egunean bi edo hiru aldiz, baina ez du etengabe zaintzaile baten presentzia behar.

**III. GRADUA.** Mendekotasun handia: Pertsonak eguneroko ohiko ekintzak egiteko laguntza behar du behin baino gehiagotan eta pertsona baten laguntza ere behar du ezinbestean eta etengabe.

Gradu bakoitzak bi maila ditu, pertsonaren autonomiaren eta behar dituen laguntzen intentsitatearen arabera.

# BALDINTZA BEREZIAK ETA PRESTAZIOAK ESKA DITZAKETEN PERTSONAK

## Familia inguruneko zaintzetarako prestazioa:

- \* Prestazio honen egokitasuna baieztatzea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek.
- \* Etxean jasotzea zaintza, eta mendekotasuna duen pertsonaren beharretarako egokia izatea zaintza hori.
- \* Etxeko elkarbizitza eta bizigarritasun baldintzak egokiak izatea.
- \* Zaintzailearen betebeharrak:
  - Mendekotasuna duen pertsonaren ezkontidea, izatezko bikotekidea edo 3. gradu arteko ahaidea, odol, ezkontza edo adopzio bidez.
  - 18 urte baino gehiago izatea eta legez bizitzea Gipuzkoan.
  - Gizarte Segurantzari alta emanda egotea edo Estatuak finantzaturako hitzarmen berezi baten bidez ematea alta.
  - Mendekotasuna duen pertsonarekin bizi eta erroldatuta egotea.
  - Mendekotasuna duen pertsonatzat jota ez izatea.

Prestazio hau edozein mailatako III. eta II. graduko mendekotasuna duten pertsonak eta I. graduko 2. mailakotzat jotakoek eska dezakete.

## Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa:

- \* Prestazio honen egokitasuna baieztatzea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek.
- \* Edozein mailatako III. graduko mendekotasuna eta hiru urte baino gehiago izatea mendekotasuna duen pertsonak.
- \* Kontratu bat izan behar da mendekotasuna duen pertsonaren eta laguntzaile pertsonalaren edo laguntza pertsonal hori ematen dion enpresaren artean.


- \* Laguntzaile pertsonalaren betebeharrak:
  - 18 urte baino gehiago izatea eta legez bizitzea Gipuzkoan.
  - Ahaidetasun erlaziorik ez izatea mendekotasuna duen pertsonarekin.
  - Gizarte Segurantzaz alta emanda egotea.

Prestazio hau edozein mailatako III. graduako mendekotasuna duten pertsonak eska dezakete.

#### **Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa:**

- \* Eguneko Zentro edo Egoitza publikoen zerbitzua eskatuta izan eta hiru hilabete baino gehiago eramatea itxaron zerrendan.
- \* Bi zerbitzu horietakoren bat zentro pribatuen batean ematen diotela egiaztatzea kontratu baten bidez.

Prestazio hau edozein mailatako III. eta II. graduako mendekotasuna duten pertsonak eska dezakete.





## **BATERAGARRITASUNA, BATERAEZINTASUNA ETA KENKARIAK**

- \* Hiru prestazio ekonomiko hauek bateraezinak dira, hau da, bat jasoz gero, ez dago beste bat jasotzerik aldi berean.
- \* Hiru prestazio ekonomiko hauek bateraezinak dira, era berean, egoitza arreta etengabea jasotzearekin ere, egoitza publiko edo itunduan. Era berean, ez dago familia inguruneke nahiz laguntza pertsonaleko prestazio ekonomikorik jasotzerik mendekotasuna duen pertsona egoitza pribaturen batean izanez gero.

- \* Prestazio ekonomikoak eta beste zerbitzu hauetakoren bat ere jasotzen bada, baldintza hauek izango dira:
  - Etxeko laguntza zerbitzua jasoz gero: %20ko kenketa
  - Eguneko Zentroa edo Arreta Okupazionala: %50eko kenketa
  - Eguneko Zentroa edo Arreta Okupazionala + Etxeko laguntza zerbitzua: %60ko kenketa
  - Denboraldiko egonaldiak, gizarte eta osasun zentroak, psikiatrikoak edo antzekoak: 2 hilabete baino gehiagoko egonaldia (etengabea): prestazioa eten egingo da aldi batean.
- \* Antzeko izaera edo helburua duen beste edozein prestazio publikok ere kenkaria izatea ekarriko du. Zehazki:
  - Erabateko ezintasun iraunkorreko pentsioaren baliaezintasun handiaren osagarria.
  - Norberaren kargura 18 urtetik gora eta %75 edo gehiagoko minusbaliotasuna duen seme-alabengatik ematen den kiru kopurua.
  - Beste norbaiten beharragatik ematen den baliaezintasuneko kotizatu gabeko pentsioaren osagarria.
  - Beste norbaiten laguntza beharragatik emandako subsidioa, Minusbaliatuak gizarteratzeari buruzko legekoa.
- \* Prestazio ekonomikoaren zenbatekoa zehazteko orduan kontuan izango da Pertsona Fisikoen gaineko Errentaren Aitorpenean adierazitako errendimendua ere, eta, horren arabera, %10, %20 edo %30eko kenketak izan daitezke.





## PROZEDURA ETA SORTZAPENA

Eskaera aurkezteko tokia mendekotasuna duen pertsona bizi eta erroldatuta dagoen udalerriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua da.

Eskabidea egin eta hurrengo hilabetetik aurrera ordainduko da prestazioa, prestazioa jasotzeko bete behar diren baldintza guztiak betetzen diren bitartean.

## BETEBEHARRAK

- \* Eman den xederako bestetarako ez erabiltzea prestazioa.
- \* Eskatutako informazioa eta dagokion dokumentazioa ematea.
- \* Konpromisoa hartzea prestazioaren xede den zerbitzua benetan bete dadin. Horretarako, hilabeteko epean jakinarazi beharko da gertatu den edozein aldaketa, horrek laguntza aldatzea edo behin-behingo edo behin betiko amaitzea eragiten badu.
- \* Oker jasotako prestazioak edo okerreko zenbatekoan jasotakoak itzultzea.

## ARAUDIA

Uztailaren 21eko 25/2009 Foru Dekretua, 2006ko abenduaren 14ko 39/06 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta besteen beharrian dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, ezarritako prestazio ekonomikoak arautzen dituena.



## 2010EKO ABENDUAREN 30 ARTEAN, 53.091 PERTSONA DIRA BALORAZIOA EGINA DUTENAK ETA 15.916 PERTSONA MENDEKOTASUN PRESTAZIOAK JASOTZEN DITUZTENAK

15.068 pertsona dira mendekotasun gradu handienarekin baloratuta daudenak: III. Gradua, mendekotasun handia; 10.508 mendekotasun gradu larria dutenak (II. Gradua) baloratuta daudenak, eta 7.958 mendekotasun gradu ertaina (I. Gradua) dutenak.

Bestalde, 8.859 pertsona dira familia inguruneko zaintzetarako prestazioa jasotzen dutenak, 1.061 laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa jasotzen dutenak eta 143 zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa dutenak.

Azkenik, esan dezagun 94.811.657,68 € ordaindu direla hiru prestazio ekonomiko horiek direla eta. Honela banatuta:

- \* Familia inguruneko zaintzetarako prestazioa: **75.510.089,34 €**
- \* Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa: **16.665.999,24 €**
- \* Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa: **2.635.569,10 €**